

ZUNDAKETA-SUZIRI BATEN DISEINUAN ETA FABRIKAZIOAN LAGUN GAITZAZU

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Bilboko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
 - Ingeniaritza Elektrikoa
 - Industria Elektronikoaren eta Automatikaren Ingeniaritza
 - Industria Teknologiaren Ingeniaritza
 - Ingeniaritza Mekanikoa
 - Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritza
 - Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Bilboko Ingeniaritza Eskola, II-I eraikina.
Rafael Moreno "Pitxitxi", 3. Bilbo (Bizkaia)

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Jarduera honetan, mundu aeroespazial zirrargarrian sartuko zara, eta bertan suziri baten diseinuaren, programazioaren eta fabrikazioaren hainbat alderdi aztertuko dituzu. Prozesu osoa hartuko dugu, hasierako kontzepzioetik hasi eta CAD teknologia erabiliz fabrikazio gehigarriko prestatzeraino.

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Mundu aeroespazialerako sarrera.
- Suziri bat kontrolatzen duen elektronika diseinatzea eta programatzea
- Suziri baten diseinua eta egiturak, CAD softwarea erabilia.
- CAD eredu horiek fabrikazio gehigarriko prestatzea

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Jarduera honetan, teknologia aeroespazialaren munduan murgiltzeko aukera izango duzu, erronka praktiko bidez. Hasteko, espazio-esplorazioari buruzko sarrera teoriko labur bat egingo dugu, testuingurua ezartzeko. Gero, proiektuaren alde praktikoari erreparatuko diogu.

Suziri baten funtsezko elementuak diseinatzeko, programatzeko eta fabrikatzeko ekipoetan lan egingo duzu. Suziria kontrolatzeko elektronika mikrokontrolagailuak erabiliz programatzen ikasiko duzu. Horri esker, zure hegaldia modu seguruan zuzendu eta monitorizatu ahal izango duzu.

Ondoren, CAD softwarea erabiliko dugu suzirien egiturak diseinatzeko. Diseinua amaitu ondoren, fabrikazio gehigarriako gure CAD ereduak prestatuko ditugu, 3D inprimaketa erabiliz gure diseinuak gauzatzeko.

Esperientzia praktiko horrek printzipio aeroespazialen ulermen praktikoa eskainiko dizu, eta STEM diziplinetan duzun interesa sustatuko du.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordutegia	Plazak
2026-02-02	Gaztelania	Goizez	10:00 – 14:00	20
2026-02-03	Gaztelania	Goizez	10:00 – 14:00	20
2026-02-04	Gaztelania	Goizez	10:00 – 14:00	20